



## BALDINTZA TEKNIKOAK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BERDINTASUNERAKO III. PLANA PRESTATU, BULTZATU, KOORDINATU ETA HORREN JARRAIPENA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO

### 1. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa da berdintasunerako foru politikak bultzatu eta koordinatzeko, eta horien jarraipena zein ebaluazioa egiteko arduraduna.

Modu espezifikoagoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari dagokio berdintasunaren arloko plangintzaren diseinua eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarraipen eta ebaluazio-mekanismoak zuzentzea, «2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak», 8.2.a) eta 8.3.a) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Era berean, «4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak», 6.c) artikuluan, ezartzen du foru administrazioen eginkizuna dela bakoitzak bere lurralde eremuan berdintasunerako programak egitea EAE mailan ezarritako erreferentzia esparruaren barruan, zeina gaur egun «EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planean» zehazten den, eta, hortik abiatuta, bakoitzak bere esku-hartze estrategiak definitzea eta bere jarduketak zehaztea.

Lege testuinguru horretan, berdintasunerako planak izan ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoan berdintasunerako politika publikoak garatzeko tresna nagusia «2/2015 Foru Araua» onartu zen arte.

Horrela, 2007. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenengo aldiz sortu zuen berdintasunerako politikaren ardura eramango zuen zuzendaritza nagusi bat, Giza Eskubideetako eta Garapenerako

## CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA ELABORACIÓN, IMPULSO, COORDINACIÓN Y SEGUIMIENTO DEL III. PLAN PARA LA IGUALDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### 1. INTRODUCCIÓN

El Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa es el responsable del impulso, coordinación, seguimiento y evaluación de las políticas forales para la igualdad.

De forma más específica, corresponde al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres dirigir el diseño de la planificación en materia de igualdad, así como de los correspondientes mecanismos de seguimiento y evaluación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tal y como se establece en la *Norma Foral 2/2015, para la igualdad de mujeres y hombres*, en su artículo 8.2.a) y 8.3.a).

Asimismo, el artículo 6.c) de la *Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres* establece que a las administraciones forales les corresponde la programación para la igualdad en su ámbito territorial dentro del marco de referencia establecido a nivel de la CAE, que actualmente se concreta en el *VII Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE*, y a partir de ahí definir sus propias estrategias de intervención y concretar sus actuaciones.

En este contexto normativo, los planes para la igualdad fueron, hasta la aprobación de la *Norma Foral 2/2015*, el instrumento principal para el desarrollo de las políticas públicas para la igualdad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Así, en 2007, la Diputación Foral de Gipuzkoa creó por primera vez una dirección general responsable de la política para la igualdad, además de la de Derechos Humanos y Cooperación al



Lankidetzarako zuzendaritzekin batera. Halaber, 2008. urtearen amaieran onartu zuen «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako I. Foru Plana (2008-2011)».

Ondoren, 2011. urtean, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia sortu zen, berdintasunerako berariazko organo moduan, eta, 2013. urtean, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020)» onartu zen.

II. Plan horren indarraldian, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Araua» egin eta onartu zen, Gipuzkoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan aurrera egin, horiek sendotu eta finkatzeko helburuarekin. Tresna arautzaile horrek aurrerapen handia ekarri zuen, Lurraldeari berdintasunaren arloko esparru juridiko propioa eskaintzen baitzion, eta, horrela, Gipuzkoa erreferente bilakatu zen, mota horretako arau bat zuen lehenbiziko lurraldea izan baitzen.

«2/2015 Foru Arauak» Gipuzkoako foru administrazioaren jarduketak zuzendu behar dituzten printzipioak eta helburuak ezartzen ditu, horiek lortzeko esku-hartze ildo nagusiak zehazten ditu, eta guztia lortzeko barne antolaketako baldintza egokiak ezartzen ditu.

Ondoren, Foru Aldundiak beste bi plan berri onartu zituen: «Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko Aurre! Plana» eta «Kontziliazio Erantzunkiderako Plana». Bi plan horiek eta II. Planean ezarri gabe gelditu ziren ekintzek sortu dute «Berdintasunerako Foru Plangintza 2017-2019».

Plangintza hori 2019ko abenduan amaituko denez, berdintasunerako foru plangintza berria prestatzeari ekin behar zaio, hasi berri den legealdi berriari begira.

desarrollo. Además, a finales de 2008 aprobó el *I Plan Foral para la igualdad de mujeres y hombres (2008-2011) en Gipuzkoa*.

Posteriormente, ya en 2011, se creó una Dirección General de Igualdad, como órgano específico para la igualdad, y en 2013 se aprobó el *II Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres (2012-2020)*.

Durante el periodo de vigencia de este *II Plan* se elaboró y aprobó la *Norma Foral 2/2015 para la de Igualdad de mujeres y hombres* con el objetivo de avanzar, consolidar y dar sostenibilidad a las políticas para la igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa. Este instrumento normativo supuso un gran avance al aportar un marco jurídico propio al Territorio en materia de igualdad, convirtiéndose con ello Gipuzkoa en un referente, al ser el primer territorio en contar con una norma de este tipo.

La *Norma Foral 2/2015*, fija los principios y objetivos que deben guiar la actuación de la administración foral de Gipuzkoa, define las líneas principales de intervención para su logro y establece las condiciones de organización interna para poder hacerlo.

Posteriormente, la Diputación Foral aprobó dos nuevos planes: el *Plan Aurre! para enfrentar la violencia machista contra las mujeres en Gipuzkoa* y el *Plan para la conciliación corresponsable*. Estos dos planes, junto con las acciones pendientes de implementar pertenecientes al *II Plan* han constituido la *Planificación Foral para la Igualdad 2017-2019*.

Esta planificación llegará a su fin en diciembre del 2019, por lo que se hace necesario abordar la elaboración de una nueva planificación foral para la igualdad de cara a la nueva legislatura que acaba de comenzar.



Berdintasunerako plan berri horrek foru gobernu berriak identifikatutako erronkak jaso eta horiei erantzuna eman beharko die, Gipuzkoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten beharrei erantzuteko asmoz.

## 2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratazioaren xedea da laguntza teknikoa ematea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari «Gipuzkoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana» prestatu, bultzatu, koordinatu eta horren jarraipena egiteko.

## 3. EGIN BEHARREKO LANAK

Laguntza horrek oinarrizko lau eginkizun hauek izango ditu:

- Laguntza teknikoa ematea Berdintasunerako Organoari «Berdintasunerako III. Foru Plana» prestatu eta idazteko.

- Laguntza teknikoa ematea Berdintasunerako Organoari estrategia bat diseinatu eta ezartzeko, hartara gainerako foru zuzendaritzak inplikatzeke eta erantzunkide egiteko, bai «Berdintasunerako III. Foru Plana» diseinatzeke orduan, eta baita ere plan hori ezartzeko eta horren jarraipena egiteko orduan.

- Berdintasunerako Organoari laguntzea III. Planaren esparruan bere ardurakoak diren berriazko ekintzak diseinatu eta garatzeko lanetan, eta baita ere «Berdintasunerako III. Foru Plana» ezartzeko zereginetan inplikaturik dauden foru zuzendaritzek bultzatzen, laguntzen eta aholkularitza teknikoa ematen.

- «Berdintasunerako III. Foru Plana»ren urteko jarraipena eta jarraipen orokorra egitea.

Este nuevo Plan para la Igualdad deberá recoger y dar respuesta a los retos y desafíos identificados por el nuevo Gobierno foral, de cara a dar respuesta a las necesidades en relación con la igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa.

## 2. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de la contratación es apoyar técnicamente al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres en la elaboración, el impulso, la coordinación y el seguimiento del *III Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa*.

## 3. TRABAJOS A REALIZAR

Dicho apoyo se concretará en cuatro funciones fundamentales:

- Asistencia técnica al Órgano para la Igualdad en la elaboración y redacción del *III Plan Foral para la Igualdad*.

- Asistencia técnica al Órgano para la Igualdad en el diseño e implementación de una estrategia para involucrar y corresponsabilizar al resto de direcciones forales, tanto en el diseño, como en la implementación y seguimiento del *III Plan Foral para la Igualdad*.

- Acompañamiento al Órgano para la Igualdad en las labores de diseño y desarrollo de las acciones específicas de las que sea responsable en el marco del III Plan, así como en el impulso, apoyo y asesoramiento técnico a las distintas direcciones forales implicadas en la implementación del *III Plan Foral para la Igualdad*.

- Realización del seguimiento anual y global del *III Plan Foral para la Igualdad*.



Halaber, eginkizun horietan jarduera eta zeregin hauek sartuko dira:

**1. Laguntza teknikoa ematea Berdintasunerako Organoari «Berdintasunerako III. Foru Plana» prestatu eta idazteko.**

1.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin batera diseinatzea eta adostea III. Foru Plana egiteko prozesurako lanerako plana.

1.2. Berdintasunarekin zerikusia duten balizko eragileak eta adituak identifikatzea, prozesuan parte hartzeko aukera izan dezaten eta funtsezko ekarpenak, edo kontrasteak, egin ditzaten Berdintasunerako Planaren edukien inguruan.

1.3. Berdintasunerako aurretiazko foru plana egitea, Berdintasunerako Organoak emandako jarraibideen arabera eta hark, hala badagokio, ekar dezakeen aurretiko oinarrizko dokumentutik abiatuta.

1.4. Aurretiazko planaren kontraste prozesua egitea, bai Foru Aldundiaren barruan, maila politiko zein teknikoan, bai kanpoan, berdintasunaren esparruko eragileekin.

1.5. Modu ordenatuan eta sistematizatuan jasotzea kontraste saioetan egindako hobekuntza proposamenak eta ekarpenak, horien bideragarritasuna aztertuz eta Berdintasunerako Organoaren erantzuna prestatuz.

1.6. Aurretiazko planari gehitzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin adostutako ekarpenak eta proposamenak.

1.7. Adierazle baliagarriak identifikatzea betetze mailaren eta proposatutako helburuen lorpenaren jarraipena egiteko.

1.8. Idaztea azkeneko III. Foru Plana. Eduki hauek jaso beharko ditu Berdintasunerako Organoak ezarritako

Estas funciones, a su vez, incluyen las siguientes actividades y tareas:

**1. Asistencia técnica al Órgano para la Igualdad en la elaboración del III Plan Foral para la Igualdad.**

1.1. Diseñar y acordar con el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres el plan de trabajo para el proceso de elaboración del III Plan Foral de Igualdad.

1.2. Identificar posibles agentes y personas expertas en relación con la igualdad para que puedan participar en el proceso y realizar aportaciones clave, o contrastes, respecto a los contenidos del Plan para la Igualdad.

1.3. Elaborar el plan foral preliminar para la igualdad, de acuerdo a las orientaciones del Órgano para la Igualdad y a partir del documento base previo que, en su caso, aporte dicho Órgano.

1.4. Realizar un proceso de contraste del plan preliminar tanto interno, dentro de la Diputación Foral de Gipuzkoa a nivel político y técnico, como externo, con agentes del ámbito de la igualdad.

1.5. Recoger de modo ordenado y sistematizado las propuestas de mejora y aportaciones realizadas en las sesiones de contraste, analizando su viabilidad y preparando la correspondiente devolución por parte del Órgano para la Igualdad.

1.6. Incorporar al plan preliminar las aportaciones y propuestas acordadas con el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres.

1.7. Identificar indicadores válidos para el seguimiento del grado de cumplimiento y del logro de los objetivos planteados.

1.8. Redactar el III Plan Foral final que deberá contener, en los términos en que se establezca desde el Órgano para la



terminoetan:

- Testuinguruan kokatzea
- Plana kokatuko duen hasierako diagnostiko orokorra
- Helburuak / Adierazleak
- Ekintzak / Arduraduna
- Egutegia zehaztea
- Aurrekontua
- Kudeaketa eta jarraipena egiteko sistema

**2. Laguntza teknikoa ematea Berdintasunerako Organoari estrategia bat diseinatu eta ezartzeko, hartara gainerako foru zuzendaritzak inplikatzeko eta erantzunkide egiteko, bai «Berdintasunerako III. Foru Plana» diseinatzeko orduan, eta baita ere plan hori ezartzeko eta horren jarraipena egiteko orduan.**

2.1. Esku-hartze estrategia bat diseinatzea, inplikaturik dauden foru departamentu eta zuzendaritzen inplikazio maila eta erantzunkidetasun maila handitzeko, planeko ekintzak definitze aldera.

2.2. Lan proposamen bat diseinatzea eta garatzea, «Berdintasunerako III. Foru Planean» jasotako ekintzak ezartzearekin zerikusia daukaten foru zuzendaritza eta zerbitzuekin.

2.3. Lan tresnak prestatzea, «Berdintasunerako III. Foru Plana» garatzen inplikaturik dauden zuzendaritzekin, lan prozesuak erraztu eta sistematizatzeko, bai haien lana planifikatzeari dagokionez bai lan horren urteko garapena eta jarraipena egiteari dagokionez.

2.4. Beste foru zuzendaritza batzuekin lankidetzan aritzea, Berdintasunerako Organoak eskatuta, lotzeko, alde batetik, III. Plana ezartzeko foru departamentuen lanaren plangintza eta jarraipena, eta, bestetik, emaitzetara bideratutako aurrekontuak (EBA-Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak) eta MIDENET prestatzeko eta jarraipena egiteko prozesuak eta tresnak.

Igualdad los siguientes contenidos:

- Contextualización
- Diagnóstico inicial general que enmarque el Plan.
- Objetivos / Indicadores
- Acciones / Responsable
- Calendarización
- Presupuesto
- Sistema de gestión y seguimiento

**2. Asistencia técnica al Órgano para la Igualdad en el diseño e implementación de una estrategia para involucrar y corresponsabilizar al resto de direcciones forales, tanto en el diseño, como en la implementación y seguimiento del III Plan Foral para la Igualdad.**

2.1. Diseñar una estrategia de intervención para aumentar el nivel de implicación y el grado de corresponsabilidad por parte de los departamentos y direcciones forales implicadas de cara a la definición de las acciones del Plan.

2.2. Diseñar y desarrollar una propuesta de trabajo con las diferentes direcciones y servicios forales vinculados con la implementación de acciones recogidas en el III Plan foral para la Igualdad.

2.3. Elaborar herramientas de trabajo para facilitar y sistematizar los procesos de trabajo con las diferentes direcciones implicadas en el desarrollo del III Plan para la Igualdad, tanto a nivel de planificación de su propio trabajo como en su desarrollo y seguimiento anual.

2.4. Colaborar, a solicitud del Órgano para la Igualdad, con otras direcciones forales, de cara a la vinculación de la planificación y seguimiento del trabajo de los departamentos forales para la implementación del III Plan con los procesos y herramientas de elaboración y seguimiento de los presupuestos orientados a resultados (EBA-Emaitzei Bideratutako Aurrekontuak y MIDENET).



3. Berdintasunerako Organoari laguntzea III. Planaren esparruan bere ardurakoak diren berariazko ekintzak diseinatu eta garatzeko lanetan, eta baita ere «Berdintasunerako III. Foru Plana» ezartzeko zereginetan inplikaturik dauden foru zuzendaritzei bultzatzen, laguntzen eta aholkularitza teknikoa ematen.

3.1. Aholkularitza ematea Berdintasunerako Organoari egikaritzea dagozkion «Berdintasunerako III. Foru Planean» aurreikusitako ekintzak definitu eta diseinatzeko.

3.2. Berdintasunerako Organoari laguntzea «Berdintasunerako III. Foru Planean» jasotako bere ardurakoak diren ekintzak ezartzen.

3.3. Berdintasunerako Organoari dagozkion «Berdintasunerako III. Foru Planean» ekintzen egutegi proposamena diseinatzea, 2019-2023 aldirako.

3.4. Proposamen zehatzak prestatzea erantzuna emateko departamentuen aholkularitza teknikoko beharrei, haien ardurakoak diren ekintzak ezarri eta haien jarraipena egiteko.

3.5. Erantzuna ematea planaren garapenean inplikaturik dauden foru zuzendaritzaren aholkularitza eskaerei, III. Planaren esparruan berdintasunerako beren urteko programazioa definitzeko eta ezartzeko.

#### **4. «Berdintasunerako III. Foru Plana» ren urteko jarraipena eta jarraipen orokorra egitea.**

4.1. Urtero, III. Planaren jarraipen txostena egitea, horretarako behar den informazioa lortuz iturri desberdinetatik.

3. Acompañamiento al Órgano para la igualdad en las labores de diseño y desarrollo de las acciones específicas de las que sea responsable en el marco del III Plan, así como en el impulso, apoyo y asesoramiento técnico a las distintas direcciones forales implicadas en la implementación del III Plan Foral para la igualdad.

3.1. Asesorar al Órgano para la igualdad en la definición y el diseño de todas las acciones previstas en el *III Plan Foral para la Igualdad* que le corresponde ejecutar.

3.2. Apoyar y acompañar al Órgano para la igualdad en la implementación de las diferentes acciones recogidas en el *III Plan Foral para la Igualdad*, de cuya implementación sea responsable.

3.3. Diseñar una propuesta de calendarización de las acciones del *III Plan Foral para la Igualdad* correspondientes al Órgano para la igualdad, para el periodo 2019-2023.

3.4. Elaborar propuestas concretas que den respuesta a las necesidades de asesoramiento técnico de los departamentos, de cara a la implementación y seguimiento de las acciones de las que sean responsables.

3.5. Responder a las demandas de asesoramiento de las direcciones forales implicadas en el desarrollo del plan, de cara a la definición e implementación de su propia programación anual para la igualdad, en el marco del III Plan.

#### **4. Realización del seguimiento anual y global del III Plan Foral para la Igualdad.**

4.1. Elaborar un informe de seguimiento anual del III Plan, recabando para ello la información necesaria de las distintas fuentes.



4.2. Jarraipen partzialak egiteko aurkezpenak eta dokumentuak prestatzea, Berdintasunerako Organoak eskatuta, horiek egokiak iruditzen diren lan espazioetan aurkezteko, III. Plana bultzatzeko eta horren jarraipena egiteko: Foru Aldundiko departamentuen arteko batzordean eta departamentuetako batzordeetan, Batzar Nagusietan, eta abar.

4.3. Jarraipen txosten orokor bat prestatzea 2023. urtean, legealdian zehar egindako lanaren berri emateko. Txosten horretan jaso beharko da III. Planaren garapen mailari eta planteatutako helburuekiko emaitzei buruzko informazioa. Era berean, txostenak jaso beharko du Berdintasunerako Organoak eta foru departamentuek egindako berriazko lanaren azterketa bat, eta baita ere egin diren aurrerapenak, topatutako zailtasunak eta etorkizunerako proposamenak eta erronkak.

4.4. Prestatzea, Berdintasunerako Organoak eskatuta, laburpen-dokumentuak eta aurkezpenak, ahalbidetuko dutenak III. Planaren jarraipen txostenak ezagutzera ematea eta zabaltzea.

Jarduera horiez gain, prozesuan zehar zeregin hauek egingo dira:

- Prozesuan zehar foru departamentu, zuzendaritza eta zerbitzuekin, eta baita kanpoko eragileekin ere, antolatzen diren lan bilerak diseinatzea eta prestatzea.
- Gai zerrendak egitea, lan bilerak modu egokian garatzeko behar diren aurkezpenak eta dokumentazio osagarria prestatzea eta bilera horietako aktak idaztea.
- Berdintasunerako Organoari laguntzea bilera eta lan espazio horietan, hark hala

4.2. Elaborar presentaciones y documentos de seguimiento parciales, a solicitud del Órgano para la Igualdad, de cara a su presentación en los espacios de trabajo que se consideren oportunos, de cara al impulso y seguimiento del *III Plan*: Comisión Interdepartamental y comisiones departamentales de la Diputación Foral, Juntas Generales, etc.

4.3. Elaborar un informe global de seguimiento en 2023, que dé cuenta del trabajo realizado a lo largo de la legislatura. Dicho informe deberá aportar información del nivel de desarrollo del *III Plan* y de los resultados respecto a los objetivos planteados. También deberá recoger un análisis del trabajo específico realizado, tanto por el Órgano para la Igualdad como por los diferentes departamentos forales, así como los avances realizados, las dificultades encontradas y las propuestas y retos de futuro.

4.4. Elaborar, a solicitud del Órgano para la Igualdad, documentos-resumen y presentaciones que posibiliten dar a conocer y difundir los informes de seguimiento del *III Plan*.

Además de estas actividades, durante todo el proceso se llevarán a cabo las siguientes tareas:

- Diseñar y preparar las reuniones de trabajo que se organicen durante todo el proceso con los diferentes departamentos, direcciones y servicios forales, así como con otros agentes externos.
- Elaborar los órdenes del día, preparar las presentaciones y toda la documentación complementaria necesaria para el buen desarrollo de las reuniones de trabajo y redactar las actas correspondientes a las mismas.
- Acompañar al Órgano para la Igualdad en dichas reuniones y espacios de



eskatuta.

- Berdintasunerako Organoarekin koordinatzea plana egiteko, bultzatzeko, koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko prozesuaren fase guztietan.
- Elkarrizketa izatea, Berdintasunerako Organoak eskatzen duenean, III. Planaren diseinuan, kontrastean, ezarreran edota jarraipenean parte hartzen duten barneko edota kanpoko eragileekin.
- Elkarrizketak izatea, Berdintasunerako Organoak eskatzen duenean, emaitzetara bideratutako aurrekontua prestatzeko eta horren jarraipena egiteko prozesuan inplikaturik dauden beste laguntza tekniko edota eragileekin. Prozesu horren ardatz nagusia Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa da, zeinak, era berean, berdintasunerako foru plangintza jasotzen duen.
- III. Plana egin, ezarri eta horren jarraipena egitearen esparruan gauzatutako lan prozesuaren jarraipena egiteko eta lana sistematizatzeko tresnak eta dokumentuak sortzea.

#### 4. LANTALDEA

Agiri administratiboan jasotzen diren irizpide orokorrez gain, enpresek baldintza hauek bermatu beharko dituzte, aldez aurreko betebeharrak gisa, kontratuaren zerbitzuan gongo den lantaldean:

- Bi pertsonak osatu beharko dute, gutxienez, kontratu hau beteko duen lantaldea.
- Proiektuaren arduradunak, Berdintasunerako Organoaren aurrean solaskidea izango denak, prestakuntza espezializatua izan beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Horretarako,

trabajo, a solicitud del mismo.

- Mantener la coordinación con el Órgano para la Igualdad durante todas las fases del proceso de elaboración, impulso, coordinación y seguimiento.
- Mantener la interlocución, cuando el Órgano para la Igualdad así lo solicite, con agentes internos y/o externos involucrados en el diseño, contraste, implementación y/o seguimiento del III Plan.
- Mantener la interlocución, cuando el Órgano para la Igualdad así lo solicite, con otras asistencias técnicas y/o agentes involucrados en el proceso de elaboración y seguimiento del presupuesto foral orientado a resultados, cuyo eje central es el Plan Estratégico Foral y recoge, a su vez, la planificación foral para la igualdad.
- Elaborar herramientas y documentos de seguimiento y sistematización del proceso de trabajo realizado en el marco de elaboración, implementación y seguimiento del III Plan.

#### 4. EQUIPO DE TRABAJO

Además de los criterios generales que se recojan en el pliego administrativo, las empresas deberán garantizar, como requisito previo, las siguientes condiciones en el equipo de trabajo al servicio del contrato:

- El equipo de trabajo destinado al cumplimiento del presente contrato deberá estar compuesto, como mínimo, por dos personas.
- La persona responsable del proyecto, que será la interlocutora ante el Órgano para la Igualdad, deberá contar con formación especializada en materia de igualdad de mujeres y hombres, para lo que se deberá acreditar haber realizado





egiaztatu beharko du erakunde ofizial batek (unibertsitatea edo administrazio publikoa) emandako ikastaro espezifikoak jaso duela, gutxienez, 150 orduko iraupenarekin.

- Lantaldeko pertsona batek gutxienez egiaztatutako esperientzia izan beharko du administrazio publikoentzako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak prestatzen, bultzatzen, koordinatzen eta/edo horien jarraipena egiten. Egiaztatze horrek erreferentzia egin beharko dio emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak prestatu, bultzatu, koordinatu eta/edo horien jarraipena egiteko alorrean esperientzia egiaztatzen duen pertsona fisikoari.
- Proposatutako lantaldeko kideetako batek euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko du, kontratuaren egikaritzean bi hizkuntza ofizialetan, bai idatziz bai ahoz, normaltasunez aritu ahal izateko (bai Berdintasunerako Organoarekin berarekin bai inplikaturik dauden barne eta kanpoko eragileekin). Hori egiaztatuko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila egiaztatzen duten agiri ofizialak aurkeztuz.

un curso específico de al menos 150 horas de duración, impartido por un organismo oficial (universidad o administración pública).

- Al menos una persona del equipo de trabajo deberá contar con experiencia acreditada en la elaboración, impulso, coordinación y/o seguimiento de planes para la igualdad de mujeres y hombres para las administraciones públicas. Dicha acreditación debe hacer referencia a la persona física a la que se le acredita la experiencia en materia de elaboración, impulso, coordinación y/o seguimiento de planes para la igualdad de mujeres y hombres.
- Alguna de las personas integrantes del equipo propuesto deberá acreditar su capacidad lingüística en euskera, con la finalidad de trabajar con normalidad en ambas lenguas oficiales a nivel escrito y oral (tanto con el propio Órgano para la Igualdad como con los diferentes agentes internos y externos involucrados), en el marco de la ejecución del contrato. Dicha acreditación se realizará mediante los títulos oficiales que acrediten el conocimiento a nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Donostia, 2019ko irailaren 12a / San Sebastián, a 12 de septiembre del 2019

**Berdintasuneko zerbitziburua/  
Jefa del Servicio de Igualdad**

**Sin./Fdo.- Ana Agirre Saez de Eguilaz**